


## 6- BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Bezeroekin harremanetan jartzea lortzen dugunean, bakoitzari pertsonalizatuko zerbitzua eskeiniko diegu. Esan bezala, eskaintza hau aldakorra izango da, bezeroen beharren eta nahien arabera zehazki. Beraz, gure berezitasunetako bat, bezeroekin harreman pertsonalak sortu nahi ditugula da. Gertutasun honen bidez, bezeroak gustora sentintzea lortuko dugu, hurrengo batean gurekin harremanetan jartzeko aukera handituz.

Hil-kutxaren tamaina eta forma, lore motak, funerala egitea edo ez, lurperatzea edo erretzea... izango dira gure bezeroek edukiko dituzten aukera batzuk, ahalik eta zerbitzu pertsonalizatua izateko.



Bestalde, gure tratua eta eskaintza hobetzeko, bezeroak ditzuten kexak eta kritikak entzungo ditu. Horretarako “kritika kuxa” bat sortuko dugu. Kutxatila hau gure web-gunean ([FunerariaMaite.com](http://FunerariaMaite.com)) eta funerarian bertan ipiniko dugu. Aukera hau bezero guztiei eskeiniko diegu beraien iritzia eta hobekuntzak txertatzeko. Modu egokia iruditzen zaigu gure enpresa garatzeko eta hedatzeko.

